

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizen ekintzaileen jarduera sustatzeko laguntza ekonomikoen udal programaren —“2024ko ekintzaileentzako beka”— deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko uztailaren 29an jarri zen indarrean.

Araudi horren lehen artikulua xedatzen duenez, Ordenantzaren “xede da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea”. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke horiek. Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2024ko martxoaren 1ean egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak “2024ko ekintzaileentzako beka” udal programaren deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak.

Erabaki horren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hila-beteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berriazko oinarri arautzaileen publikotasunari buruz araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

1. oinarria. Dirulaguntzen lerroa: ekintzaileentzako beka, 2024

Laguntza hauek indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) aurreikus-tzen dira (08_03_v02 fitxa. Ekintzaileei laguntzea), zeina 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak.

Planak dirulaguntza-ildo honen barruan kokatzen ditu laguntzak: ekintzaileei laguntzea.

Aipatutako ildoari jarraituz, laguntza hauen helburua da enpresen sorrera sustatzea, ekintzaileei beren enpresa proiektua garatzen duten bitartean ekonomikoki lagunduz. Laguntzen bidez sustapenerako helburu espezifiko hau lortu nahi da: ekintzaile izan daitezkeen pertsonen laguntzea enpresa-idea bat sortzen, aztertzen eta egituratzen, ekintzaileentzako tokiko proiektuen esparruan.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Beren enpresa-proiektua garatzen duten bitartean ekintzaileei laguntzeko eta ekintzaileen kultura sustatzeko —konkurrentzia-erregimena baliatuz— laguntza ekonomikoak emateko baliatuko diren arauak biltzea da oinarri hauen xedea. Era berean, gizartean eta ingurumenean eragin positiboa izango duten proiektuak sortzea lortu nahi da deialdi ireki honen bitartez, eta ekintzaileek martxan jartzen dituzten ekimenen iraupen-tasa hobetzea.

Laguntza ekonomiko hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta konkurrentzia-erregimenean emango dira, hau da, dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzearen, deialdian alde aurretik ezarritako balioespen-irizpideen arabera, Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren III. kapituluarekin eta 19.1 artikuluekin bat etorriz (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eta deialdi irekia eginez, aurrekontu-ekitaldi batean zehar eta dirulaguntza lerro bererako ondoz ondoko hautaketa-prozedura zenbait bultzatuz, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 59. artikuluekin bat etorriz.

Beka emateak eta jasotzeak ez du berekin ekarriko bekadunaren eta enpresa-proiektua bideratzen deneko entitate edo zentroaren arteko inolako lan-loturarik, ezta haren eta Udalaren artekorik ere.

3. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren gardentasun atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

4. oinarria. Onuradunen betekizunak

Eskabideak aurkezteko epean baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak jaso ahalko dituzte deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak:

- Adinez nagusi izatea.
- Vitoria-Gasteizen erroldatuta egotea.
- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.
- Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari izatea.
- Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan alta emanda ez egotea, eta norberaren kabuz ekonomia-jarduera bat gauzatzen ez aritzea. Garapen-fasean dauden proiektuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira, ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea baita deialdiaren helburua.
- Aurreko urteetan beka-onuradun ez izana.

5. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2024ko udal aurrekontuko 08.21.4331.4.8949 partidaren kontura —“Ekintzaileentzako beka” — finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak; 90.000,00 eurokoa da partida horren zuzkidura

Eskabideak aurkezteko lehen epean aurkeztutako eskabideek (deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko ekainaren 14ra arte, biak barne) 45.000,00 euroko aurrekontua izango dute eskuragarri, eta bigarren epean aurkeztutakoek (2024ko ekainaren 15etik irailaren 27ra arte) beste 45.000,00 euro izango dute.

Lehen epeko eskabideak ebatzi eta dirulaguntzak ematen direlarik, baldin eta zegoen aurrekontu osoa agortu ez bada, baliatu gabeko diru-kopurua bigarren epekoari gehituko zaio, eta berariaz utziko da hala jasota balorazio-batzordearen aktan.

Baldin eta Vitoria-Gasteizko Udalaren aurrekontu orokorrean behin betiko onesten den aurrekontu-kreditua hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa bada, deialdiari aplikatu ala ez erabaki ahal izango du organo kudeatzaileak; lehen kasuan, behar den gastu-dosierra izapidetuko da ebazpena eman aurretik, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan xedatutakoaren haritik, zuzkidura hori handitzerik izango da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabakia dela medio, baldin eta udal sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako krediturik badago, eta interes publiko, ekonomiko eta sozialeko arrazoiak tarteko.

Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan aski kreditu izan beharko du erabilgarri eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

6. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publikok edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

Nolanahi ere, eskuratzen diren dirulaguntzen/laguntzen baturak ezingo du gainditu dena delako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza edo baliabiderekina batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

7. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkezteko epea eta bideak

7.1. Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko dira indarrean oinarri hauek; alde zuzenetik laburpen-iragarkia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan.

7.2. Deialdi honek bi epe izango ditu eskabideak aurkezteko:

- Lehen epea oinarri hauek indarrean jartzen diren egunetik 2024ko ekainaren 14ra bitartekoa izango da.

- Bigarrena, 2024ko ekainaren 15etik irailaren 27ra artekoa.

7.3. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

— Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko dira, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

— Aurrez aurre:

- Udalaren bulego teknikoetan (Dublang Margolariaren kalea); orduategia: 8:30-14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).
- Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistematik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89. artikuluan xedatutakoaren arabera (16.4 b artikulua), eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo aurkeztutako eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko.

7.4. Interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Interesdunek honako eskabide hau aurkeztu beharko dute (oinarriei erantsitako ereduaren arabera):

- Eskaera inprimakia (I. eranskina).

7.5. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

7.6. Urriaren 29ko 39/2015 Legearen 94 artikulua xedatutakoaren arabera, administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek.

Beraz, honako hauetatik datozen funtsekin:

- alde batek eskatutako balizko atzera egiteak edo uko egiteak, edo
- atzera egitearen ofiziotako deklarazioak eta uko egitearen ofiziotako deklarazioak, eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik dosierak jarraitu ez duelako,

eta erregistroan sartzeko hurrenkera zorrotzari jarraituz (deialdiaren oinarrietan pertsona edo entitate onuradunari ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren), beste laguntza batzuk emango dira bigarren ebazpen batean, betiere horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago; nolana ere, zuzkidura ekonomikoaren funtsek mugatuko dute emango diren laguntzen gehienekoa.

8. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza-eskabideei:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitorpena (I. eranskina).
- Nortasun Agiri Nazionalaren kopia edo, atzerritarren kasuan, dokumentu baliokidearena.
- Enpresa-proiektua (ikus eredu II. eranskinean).
- Lan-plana, non aurreikusitako jarduerak, lortu nahi diren helburuak eta egutegia zehaztu beharko baitira (III. eranskina).
- Ekintzaileei laguntzen esperientzia duen entitatearen batek proiektua bideratu bitartean tutoretza-lanak egiteko konpromisoa bere gain hartzen badu, konpromiso hori adierazten duen agiria, eta aurreikusitako tutoretza-lanen programa.

9. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

9.1. Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 20.4 artikulua il-dotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

9.2. Sailak eskatzaileei eska diezaieke eskabidean jasotakoa borondatez aldatzeko edo hobetzeko.

10. oinarria. Esleipen-prozedura

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Balioespen-batzorde bat eratu da horretarako, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak —lehendakari arituko da—, Enpresen Zerbitzuko buruak —idazkari arituko da— eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua.

Eskabideak jaso eta betekizunak betetzen diren egiaztatu ondoren tramitatzea onartzen delarik, txosten teknikoa egingo da, eta, balorazio-batzordeak proposamena aurretik eginda, Tokiko Gobernu Batzarrek ebatziko ditu eskabideak, horretarako eskumena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Hala ere, dirulaguntzak ematekotan, kreditu egokia eta nahikoa izan beharko da deialdia ebazteko orduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, laguntzen eskatzaileek helbide elektroniko operatibo bat eman ahalko dute eskabidean, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo eskatzen diren laguntzak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

ALHAOren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babes-teari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren irizpideei jarraituz.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra, aukeran, berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko da, erabakia hartu duen organoari zuzenduta, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik.

Oinarri hauetan berariaz aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren erregelamendua ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

11. oinarria. Ebazteko epea

Prozedura ebazpena emateko eta argitaratzeko epea sei hilabetekoa izango da gehienez.

Lehen epeko eskabideei dagokienez, oinarri hauek indarrean jartzen diren egunetik kontatuko da epe hori.

Bigarren epeko eskabideei dagokienez, berriz, eskabideak aurkezteko bigarren epe horretako lehen egunetik.

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsizat jo ahalko dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

12. oinarria. Onuradunen betebeharrak

– Finantzatutako jarduera burutzea, eta jasotako funtsak horretarako baliatzea, dirulaguntza emateko baldintzetan adierazi bezala.

– Proiektuak gauzatzean edozein aldaketa egiten bada, Gasteizko Udalaren Enpresen Zerbitzuari jakinaraztea.

– Helburu berarekin beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional nahiz nazioartekoren batek emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, Gasteizko Udalaren Enpresen Zerbitzuari jakinaraztea, baita zertarako baliatu diren ere. Jakin bezain laster eman behar da horren berri.

– Vitoria-Gasteizko Udaleko Enpresen Zerbitzuaren aurrean egiaztatzea – hark hitzarmen honetako diru-kopurua ordaindu aurretik – zerga-betebeharrak bete dituela eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu, eta orobat bete dituela udal ogasunarekiko betebeharrak.

– Jasotako diru-kopuruak itzultzea, baldin eta hitzarmenaren xede diren proiektu edo jarduerak betetzen ez baditu edo ezarritako baldintzetan betetzerik ez badauka, edota diruz lagundutako kostutik gain eskuratutako kopurua itzultzea.

– Udalari diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egiteko eskatzen dizkion agiriak oro ematea.

– Agiriak egiaztatzeko ekintzen mende jartzea, baita Gasteizko Udaleko Kontu Hartzailtza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitakoen mende ere.

– Dirulaguntza justifikatzea, 17. klausulan ezarritakoaren ildotik.

13. oinarria. Balioespen-irizpideak

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
1. Proiektuaren zehaztasuna, argitasuna eta kalitatea	15 puntu gehienez
2. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa	15 puntu gehienez
3. Proiektuaren berrikuntza-maila	10 puntu gehienez
4. Lan-planaren zehaztasuna, koherentzia eta edukiak	10 puntu gehienez
5. Pertsona eskatzaileak jardueraren inguruan duen prestakuntza teknikoa	9 puntu gehienez
6. Pertsona eskatzaileak enpresak sortzearen eta enpresa-kudeaketaren alorrean duen prestakuntza eta jaso duen aholkularitza	9 puntu gehienez
7. Pertsona eskatzaileak jardueraren inguruan duen lan-esperientzia	9 puntu gehienez
8. Pertsona eskatzailearen inplikazio-maila eta proiektuari esakainitako dedikazioa	8 puntu gehienez
9. Enplegua sortzeko aurreikuspena	5 puntu gehienez
10. Jarduera ekonomiko berriak, ekonomia zirkularra, sorkuntza-industriak edo ekonomia sozialeko jarduerak	5 puntu gehienez
11. Emakumeen ekintzailtza, emakumeen presentzia txikiagoa den sektoreetan, esaterako nekazaritzan, industrian, eraikuntzan, garraioan eta zenbait zerbitzu profesionaletan: informatika, ikerkuntza zientifiko-teknikoa, ingeniarietza eta arkitektura	5 puntu gehienez
Gehieneko puntuazioa	100 puntu

14. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

Ekintzaile baten ekimenak beka jasotzerik izan dezan, gutxienez 65 puntu lortu beharko ditu, 100etik.

Bekaren gehieneko zenbatekoa 2500,00 eurokoa da, eskatzaile bakoitzeko. 85 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskatzaileek 2500,00 euro eskuratuko dituzte. Gutxieneko puntuazioa —65 puntu— lortzen dutenek, 1000,00 euro. 66 eta 84 puntu bitartean lortzen dituzten proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie, bekaren zenbatekoa kalkulatzeko. Dagoen kreditua nahikoa gertatzen ez bada, murrizketa proportzionala aplikatuko zaie proiektu guztiei, 65 puntu edo gehiago lortu dituzten eskabide guztiei erantzute aldera.

15. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Ordainketa bakarrean ordainduko dira laguntzak.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, pertsona edo entitate onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, edo zordun gertatzen bada, dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delako.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

16. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen dituen funtsezko edozein aldatetarik ebazpena aldatzea eragin dezake, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

17. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

Burututako jarduerak eta lortutako emaitzak zehazten dituen oroitidazki sinatua aurkeztez (IV. eranskina) justifikatu beharko du pertsona onuradunak emandako dirulaguntza, beka eskabidean aurkeztutako lan-planaren jarraipena egiterik izan dadin. Eskabideak aurkezteko lehen epean aurkezten diren proiektuen oroitidazkiak irailaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dira, eta bigarren epean aurkezten direnenak, berriz, abenduaren 16a baino lehen.

Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzak VI. kapituluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) ezarritakoarekin bat etorritik, dirulaguntza ematen duen organoak justifikaziorako ezarritako epea luzatu ahal izango du, betiere, epearen erdiari dagokiona baino gehiago ez bada luzapena, eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Ezarritako justifikazio-epea igaro eta administrazio-organo eskudunari aurkeztu ez bazaio, organo horrek onuradunari eskatuko dio hamabost egun balioduneko epe luzaezinean aurkez dezala. Ezarritako epe horretan justifikazioa aurkezten ez bada, itzultzeko eskatuko da eta, hala badagokio, dagokion dossier zigor-tzailea abiaraziko. Justifikazioa epe horretan aurkezteak ez du onuraduna salbuesten ezar lezikiokeen zehapenetatik.

18. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahal izango ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote pertsona onuradunek. Horretaz gain, Udaleko Kontu Hartzaitza Nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

19. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

19.1. Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta ebazpen baten ondorioz zordun bada ere, dirua itzuli behar delako.

19.2. Dirulaguntza eman zuen organoak izango du eskumena hura itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko.

Ofizios nahiz organo eskudunak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahalko da prozedura.

19.3. Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio Udalak dirulaguntzaren onuradun den pertsona edo enpresari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzunaldia eskainiko, egokitzen dituen alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez ditzan, 15 eguneko epean.

19.4. Alegazioak jasotzen direlarik nahiz halakorik jaso gabe igarotzen delarik epea, ebazpen arrazoitua emango du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri adieraziko. Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

19.5. Ebazpenean urraketaren bat izan dela adierazten bada, galdutzat joko da laguntza jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik.

Borondatezko aldian ordaintzeko epetzat joko da epe hori.

19.6. Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotako datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, ezinezkoa izango da eskubidea baliatzen jarraitzea egitate horien berri izaten den unetik bertatik aurrera, eta, gainera, itzuli egin beharko dira deialdiko baldintzak ez betetzeagatik jasotako zenbatekoak. Halaber, izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak ekar ditzake (39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

19.7. Laguntza aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio, aplikagarri diren lege-araudiei jarraituz.

Itzularazteko prozedura administrazio arau-hauste baten ondorioz abiarazia bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikagarri den prozedura zigortzaileari ekin diezaion.

20. oinarria. Konfidentzialtasun-klausula

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

21. oinarria. Berdintasun-klausulak

Genero berdintasunaren printzipioak aplikatzea.

Pertsona edo entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 14/2012 Legea errespetatu beharko du, baita Yogyakarta printzipioak ere: Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Horrela, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, hitzarmena sinatzen duen entitatearen proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

– Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzeko konpromisoa, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; generoaren, klase sozialaren, jatorri kulturalaren, administrazio-egoeraren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren arabera desberdintasunak agerian uztera edo arintzera bideratutako helburu eta jarduketa espezifikoak txertatuz, eta ekintza positiboak aurreikusiz.

– Generoa kontuan hartzerakoan, pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualak direla ziurtzat ez jotzeko konpromisoa —zisheteronormatibitatea—, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Orientazio sexuala eta genero-identitatea tratatzerakoan, patologizazioa, biktimismoa eta pinkwashinga saihesteko konpromisoa.

– Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexua/generoa aldagaia sistematikoki txertatzeko konpromisoa —emakumea/gizona/ez-binarioa edo entitateak egokitzen jotzen duen beste forma bat—.

– Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak edo pertsona-taldeak bidezko modu batean irudikatzeke, generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren arabera rol eta estereotipoak indartu gabe.

22. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Pertsona onuradunak adierazten du betetzen dituela datu pertsonalak babesteari buruz in-darrean dagoen araudia eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak.

Gainera, datu horiei Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako segurtasun-neurriak aplikatzeko konpromisoa hartzen du.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 1a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ

ERANSKINAK

I. eranskina: Eskabide-orria

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/96/52/59652.pdf>.

II. eranskina: Enpresa-proiektuaren eredia

1. Proiektuaren aurrekariak.

Ideiaen sorrera eta bilakaera.

Proiektua zein maila edo fasetan dagoen. Bideratutako ekintzak.

2. Sustatzaileak.

Curriculum vitae zehatza. Ezagupen teknikoak zehaztu, baita enpresa kudeaketaren alorrekoak ere. Sustatzaileak proiektuan zenbateraino murgilduak dauden azaldu.

3. Negozioaren egokitasunaren ebaluazioa.

Produktu edo zerbitzuaren deskribapena. Alderdi berritzaileak.

Merkatuari buruzko ezagupenak.

Sektorearen egoera eta joerak.

Izan litezkeen bezeroen ezaugarriak.

Konkurrentziaren ezaugarriak. Abantaila eta desabantailak, konkurrentziaren aldean.

Proiektuaren puntu sendoen eta izan ditzakeen ahuluneen balioespena.

4. Ekonomia eta finantza plana.

Aurreikusitako inbertsioen balioespena.

Finantzaketa-iturriak.

Diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena. Errentagarritasun atalasearen kalkulua.

5. Ondorioak.

III. eranskina: Lan-plana

1. Eskabidea aurkeztu aurreko jardueren zerrenda.

2. Aurreikusten den hileko jarduera-egutegia, honela banatuta:

– Prestakuntza-ekintzak.

– Aholkularitza.

– Jardunaldi eta ekitaldietan parte hartzea.

– Produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak.

– Merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketin-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak.

- Hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzearekin lotutako jarduerak.
 - Bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzearekin zerikusia duten jarduerak.
 - Legezko izapideak betetzeko jarduerak.
 - Enpresa abian jartzeko aurreikusitako bestelako jarduerak.
3. Enpresa abian jartzea aurreikusten den data.

IV. eranskina: Oroitidazkia

1. Egindako jarduerak, honela banatuta:
 - Gauzatutako prestakuntza-ekintzak.
 - Jasotako aholkularitza.
 - Jardunaldi eta ekitaldietan parte hartzea.
 - Produktu edo zerbitzua diseinatu eta garatzearekin zerikusia duten jarduerak.
 - Merkatu-azterketarekin, bezero-bilaketarekin, marketin-planarekin eta produktu edo zerbitzuaren promozioarekin zerikusia duten jarduerak.
 - Hornitzaileak hautatzeko, kokalekua aukeratzeko eta hura egokitzeko egindako jarduerak.
 - Bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta proiektua finantzatzearekin zerikusia duten jarduerak.
 - Legezko izapideak betetzeko egindako jarduerak.
 - Enpresa abian jartzeko egindako beste jarduera batzuk.
2. Lan-planean aurreikusitako jarduerekin alderatzea. Azaldu aurreikusitako jarduera-planaren betetze-maila.
3. Emaitzak. Azaldu aurreikusitako helburuak lortu diren, eta enpresa eratu den.
4. Prozesuko oztopo eta zailtasunak.
5. Proiektuaren perspektibak.
6. Harremanetarako datuak.
7. Eguna eta sinadura.